


15. atala
ITZALA

Euri tantak leihoko kristalaren kontra kolpeka zebiltzan eta kalera ez ateratzea erabaki zuten Jone eta Aritzek.

- *Aizu Jone, zergatik uste dute batzuk Iurreta Durango dela? – Aritz serio xamar zegoen. Ez zitzaion batere gus-tatzen bere herria beste bat zela esan ziezaioten.*
- *Orain dela urte batzuk hala izan zen Aritz eta Iurretak bere herri izaera berreskuratu zuenetik 30 urte pasa diren arren, oraindik herri bera garela uste dute banaka batzuek.*
- *Iurreta Durango izan zen? – Aritz asaldatuta zegoen.*
- *Garai ilunak izan ziren Aritz – Hasi zen Jone kontatzen – Pri-mo de Rivera izeneko general bate estatu-golpea eman zuen Espainian eta diktadura bat ezarri. Garai hura apro-betxatuz Durangarrak herria handitu nahian hasi ziren eta hala, 1926. urtean, herritarren iritzia-aren kontra, Iurreta Durangoren barnean sartu zuten.*
- *Baina zer demontre!?! – Haserretu zen Aritz – Nola egin zuten halako astakeria bat?*
- *Handiek beti uste dute txikien gainetik daudela Aritz. Hala ere Iurretarrak ez ziren isilik geratu eta beren herri norta-suna errespetatu zezaten borrokan jarraitu zuten.*
- *Ez dago eskubiderik Jone! Txikiok ere baditugu gure eskubideak!*

- *Ba horixe Aritz. Garai hartan Iurretako kofradiek garrantzi handia hartu zuten eta batzuetan Udaletxearenak izan beharko liratekeen zeregin batzuk hartu zituen.*


ARIKETA:

- Zenbat urte eman zituen Iurretak Durangoren menpe?